

KUDEAKETA ARAUAK ETA MATRIKULA PROZEDURA.

NORMAS DE GESTION Y PROCEDIMIENTO DE MATRICULACION.

2. ARTIKULUA: KUDEAKETA ARAUAK

2022/2023 ikasturteko tasak, Errenteriako Udalak markatutako irizpideen arabera kudeatuko dira, ikasle edo hauen familiaren diru sarreraren baitako tasa-progresibitatean oinarritutakoa hain zuzen ere. Honen arabera, matrikula egiten duenak bere diru sarreretan oinarritutako diru kopurua ordaindu beharko du bai matrikula kontzeptuagatik baita tasa kontzeptuagatik ere.

2.1 Tasetan sartutako kontzeptuak

Tasen ordainketa honako kontzeptu hauetan banatzen da:

1) Matrikulazioa: 60 € baldin eta diru sarrerengatik ez dagokion inolako murrizketarik ikasle edo familia horri.

2) Ikasturteko kuotak: % 50eko 2 kuota

2.2. Tasetan sartutako kontzeptuen ordaintzea eta itzultzea:

1) Behin matrikula formalizatuta, 60 euroko matrikulazio-tasa edo murrizketekin dagokiona ordaintzea nahitaezkoa izango da, gerora matrikula hori baliogabetzen bada ere. Ordainketa hau, irailean burutuko da. Gerta liteke, murrizketak medio, ikasle edo familiak, matrikula kontzeptuagatik ez ordaindu behar izatea.

2) Ikasturteko kuotak: % 50eko 2 kuota

Urrian eta abenduan kobratuko dira, hurrenez hurren.

Irailaren 1etik aurrera matrikulatuz gero, matrikulazioaren kobrantza eta zenbatekoa eta kuotak ezarritako kobrantza-epeetara egokituko

ARTICULO 2: NORMAS DE GESTION

Las tasas del curso 2022/2023 se gestionarán de acuerdo con los criterios marcados por el Ayuntamiento de Errenteria, basados en la progresividad de las tasas según los ingresos del alumnado o de su familia. En virtud de lo anterior, la persona matriculada deberá abonar la cantidad que resulte según sus ingresos, tanto en concepto de matrícula como de tasa.

2.1. Conceptos incluidos en las tasas:

El pago de las tasas se divide en los siguientes conceptos:

1) Matriculación: 60 € si por ingresos no le corresponde reducción alguna a a la persona alumna o a su familia

2) Cuotas del curso: 2 cuotas del 50% cada una de ellas.

2.2. Abono y devolución de los conceptos incluidos en las tasas:

1) Una vez formalizada la matrícula, será obligatorio abonar la tasa de matriculación de 60 euros o la que corresponda con las reducciones por ingresos correspondiente, aunque posteriormente se anule dicha matrícula. Este pago se realizará en el mes de septiembre. Puede ocurrir que, debido a las reducciones basadas en las tablas de progresividad, el alumnado o su familia, no tenga que pagar nada por el concepto de matrícula.

2) Cuotas del curso: 2 cuotas del 50% cada una de ellas.

Serán cobradas en octubre y diciembre respectivamente.

En caso de matriculación a partir del 1 de septiembre, el cobro e importe de la matriculación y las cuotas correspondientes se ajustará y adaptará

dira, eta matrikulazio-dataren arabera metatu ahal izango dira.

Matrikula ezeztatuz gero, ordura arte ordaindutako ikasturteko kuotak itzultzeko eskatu ahal izango da.

Epea: 2022ko irailaren 30a.

Epe horren barruan egiten ez bada, ez da onartuko kuotak itzultzeko eskaera.

2.3. 2.2. puntuko salbuespenak:

1) Matrikularen kontzeptuari dagokion 60 euroko zenbatekoa edo aldeaz aurretik ordaindutakoaren zenbatekoa itzuli egingo da matrikula ezeztatzeke arrazoia Herri Arte Eskolari egotz dakiokeenean.

2) Matrikula eta kuota-kontzeptuen zenbatekoa itzuliko da, klaseak esleitutako irakasleekin 2 aste baino gehiagorako eskaini ezin badira. Kasu horretan, ofizioz itzuliko litzateke eskaini gabeko klase horiei dagokien zenbateko osoaren ehunekoa.

3) Aurrez ezarritako kasu hauetan, matrikulazio-kontzeptuei eta/edo kuotei dagokien zenbatekoaren itzulketa proportzionala bidezkoa den aztertuko da, interesdunak/interesdunek eskatu ondoren:

Gaixotasuna, baldin eta ziurtagiri mediko ofizial baten bidez egiaztatzen badu eskolara joateko ezintasun larria duela.

Haurdunaldia, erabateko atsedena hartu behar dela adierazten duen txosten medikoa aurkeztuta.

Amatasuna, erditze-dataren ondorengo ondoko 6 asteetan, betiere agiri bidez behar bezala egiaztatzen bada.

Derrigorrezko lekualdaketak eta **ikasketa arautuak** eta/edo homologatuak aldatzea, betiere agiri bidez behar bezala egiaztatzen bada.

a los plazos de cobro establecidos, pudiendo ser acumulados según la fecha de matriculación.

En caso de anulación de matrícula, se podrá solicitar la devolución de las cuotas del curso abonadas hasta el momento.

Plazo: 30 de septiembre de 2022.

De no realizarlo dentro de dicho plazo, no se aceptará la solicitud de devolución de las cuotas.

2.3. Excepciones al punto 2.2:

1) El importe de 60 € correspondiente al concepto de matrícula o el importe abonado previamente por lo que corresponde a los ingresos, se devolverá cuando el motivo de la anulación de matrícula sea imputable a Herri Arte Eskola.

2) Se devolverá el importe de los conceptos de matriculación y cuotas en el caso de que las clases no pudieran ofrecerse con el profesorado asignado, por un periodo superior a 2 semanas. En este caso, se procedería de oficio a la devolución del porcentaje del total del importe correspondiente a dichas clases no ofrecidas.

3) Se estudiará si procede la devolución proporcional del importe correspondiente a los conceptos de matriculación y/o cuotas en los siguientes supuestos preestablecidos, previa solicitud de la/s persona/s interesada/s:

Enfermedad, siempre que acredite por medio de un certificado médico oficial una incapacidad grave para acudir a clase.

Embarazo, bajo informe médico en el que conste la necesidad de realizar reposo absoluto.

Maternidad, durante las 6 semanas consecutivas a la fecha del parto, siempre y cuando quede debidamente acreditado documentalmente.

Traslados forzosos y cambio de **estudios** reglados y/u homologados, siempre y cuando quede debidamente acreditado documentalmente

Lan-arloko ezohiko egoerak (lekualdaketak, kaleratzeak...), betiere agiri bidez behar bezala egiaztatzen bada.

Arrazoi horiengatik egindako eskaerak Herri Arte Eskolako Zuzendaritzak aztertuko ditu, eta dagokion txostena egingo da matrikula itzultzea baimendu edo ez erabakitzeko.

Irizpena aldekoa bada, baja ematen den dataren arabera, ikasle eskatzaileak egindako aldiari dagokion matrikularen proportzioa soilik ordainduko du (ikasturte osoa ordaindu badu, dagokion zatia itzuliko zaio).

2.4. Plaza gordetzea:

Herri Arte Eskolan ikasten ari diren ikasleek gehienez 2 ikasturteetarako plaza gordetzeko eskaera egin ahal izango dute, ondoko kasuetan:

- Ikasketa arautuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiteagatik.
- Ikasketa arautuek irauten duten epe osoan zehar.

Plaza gordetzeko eskaera egiten duten ikasleek:

- Herri Arte Eskolako ikasleek matrikula egiteko duten epean idatziz eskatu beharko dute zein ikasturtetan nahi duten plaza erreserba egiten hasteko eskubidea eta horren arrazoa argudiatu beharko dute.
- Beharrezko dokumentazioa eantsi beharko dute, erreserba plaza egiteko eskubidea egiaztatzeko.
- Herri Arte Eskolako ikasleek matrikulazio prozesua hasi baino hilabete lehenago eskatu beharko dute berriro matrikulatzea.
- Nolanahi ere, adierazi egin beharko dute ikasketetan ematen den edozein aldaketa baldin eta horrek plaza erreserba egiteko eskubidea eman dion hasierako arrazoa aldatu badu.

2.5 Matrikulatzeko prozesua:

Herri Arte Eskolako matrikulatzeko datak webean eta sare sozialetan argitaratuko ditu, eta esfortzu komunikatiboa egingo da familiek ez dezaten arazorik izan prozesua egiteko.

Situaciones extraordinarias en el ámbito **laboral** (traslados, despidos...), siempre y cuando quede debidamente acreditado documentalmente.

Las solicitudes por estas causas serán analizadas por la Dirección de Herri Arte Eskola y se realizará el informe pertinente para autorizar o no la devolución de la matrícula.

En los casos en que el dictamen sea favorable, de conformidad a la fecha que se dé de baja, el o la alumna solicitante pagará únicamente la proporción de la matrícula correspondiente al periodo cursado (si ya hubiera abonado todo el curso, se le devolverá la parte correspondiente).

2.4. Reserva de plaza:

El alumnado que esté cursando estudios en Herri Arte Eskola, podrá solicitar reserva de plaza hasta un máximo de 2 cursos en los siguientes casos:

- Por realizar estudios reglados fuera de la Comunidad Autónoma Vasca.
- Durante el periodo que duren dichos estudios reglados.

Aquel alumnado que solicite la reserva de plaza deberá:

- Solicitar por escrito durante el periodo de matriculación del alumnado de Herri Arte Eskola del curso académico en el que desee que se inicie el derecho de reserva de plaza argumentando el motivo de la misma.
- Adjuntar la documentación necesaria que certifique la situación que dé derecho a reserva de plaza
- Solicitar el reingreso 1 mes antes del inicio del proceso de matriculación del alumnado de Herri Arte Eskola, del curso académico en el que quiera reingresar.
- En cualquier caso, notificar el cambio de situación de los estudios que pudiera modificar el motivo inicial por el que se le haya otorgado la reserva de plaza.

2.5. Proceso de matriculación:

Las fechas de matrícula serán publicadas por Herri Arte Eskola en su web y redes sociales, y se hará un esfuerzo comunicativo para que las familias no tengan dificultades para realizar el proceso.

Bestalde, aurreko ikasturtean bezala, matrikulazioa ezberdina izango da, **dagoeneko Herri Arte Eskolako ikaslea** izan edo **ikasle berria** den kontuan hartuta.

Web orrian, ikasgaiak, ordutegiak, tasak eta hobari mota ezberdinak ikusiko dira.

Prozesuan ondoko urratsak emango dira:

- Ikasle direnek jarraituko duten konfirmatzea eta ikasgai berri batean plaza aldatu edo espezialitatea aldatzea.
- Ikasle berriek plaza eskaera egin.
- Ikasle direnen taldeko ordutegiak publikatu eta instrumentuko ordutegia irakaslearekin adostu.
- Ikasle direnek matrikula konfirmatu.
- Onartutako ikasle berriek esleitutako taldeko ikasgaien ordutegia ikusi, instrumentuko ordutegia aukeratu eta matrikula konfirmatu.
- Plaza libreak publikatzea.

Matrikula konfirmatzean, onartuko da:

- Adierazitako ikasgaietara adierazitako ordutegian joateko konpromisoa.
- Indarreko tasak ordainduko dituela ezarritako epeetan.
- Edozein kasutan, matrikula hori gauzatzeko, 2021-2022 ikasturteko ikasgaiak gainditu beharko dira.

3. ARTIKULUA: INSTRUMENTUA AUKERATZEKO IRIZPIDEAK

3.1. Ikasle adingabekoentzat sustatu beharreko instrumentuak

Zenbait instrumentu sustatzeko irekitako hobariari eutsiz doako matrikulazioa izango duten instrumentuen zerrenda mantentzen da:

Al igual que el curso pasado, la matriculación será diferente en función de si el **alumnado ya cursa estudios en Herri Arte Eskola** o es nuevo alumnado.

En la página web que se activará se podrán ver las asignaturas, horarios, tasas y opciones de bonificación.

En el proceso se darán los siguientes pasos:

- El alumnado de Herri Arte Eskola confirmará si continúa, y si solicita plaza en alguna materia nueva o solicita cambio de especialidad.
- El alumnado nuevo solicita plaza.
- Publicación de horarios de materias colectivas para el alumnado de Herri Arte Eskola y fijación de horario de instrumento con el profesorado.
- El alumnado de Herri Arte Eskola confirma la matrícula.
- El alumnado nuevo admitido revisa los horarios de materias colectivas asignados, elige el horario de instrumento y confirma la matrícula.
- Publicación de plazas libres.

Al confirmar la matrícula, se aceptará:

- El compromiso de asistir a las asignaturas y horarios indicados.
- El pago de las tasas en vigor en los plazos establecidos
- En cualquier caso, la concreción de esta matrícula estará supeditada a la superación de las asignaturas del curso 2021-2022.

ARTICULO 3: CRITERIOS PARA LA ELECCIÓN DE INSTRUMENTO

3,1. Instrumentos a promocionar para alumnado menor de edad

Para promocionar algunos instrumentos y manteniendo la línea de bonificaciones abierta, se mantiene la lista de instrumentos con matrícula gratuita:

Kontrabaxua, tuba, tronpa, tronboia, klarineta, bonbardinoa, biola eta oboea.

Contrabajo, tuba, trompa, trombón, clarinete, bombardino, viola y oboe.

3.2. Ikasle adingabekoentzat instrumentu aukeraketa:

Instrumentuaren aukeraketarako pantailak bi talde izango ditu aukeraketa egiteko. Ikasleak bi musika tresna aukeratu beharko ditu, bere lehentasunaren arabera 1 edo 2 zenbakia jarriz eta horietako batek, nahitaez, bereziki sustatu nahi den musika tresna izan beharko du (1. Taldea). Lehentasunaren arabera: 1= gogokoena / 2= ez hain gogoko.

3.2. Selección de instrumento para alumnado menor de edad:

La pantalla de selección de instrumento tendrá dos grupos para realizar la selección. El alumno/a deberá elegir dos instrumentos, en función de sus prioridades indicando con las cifras 1 y 2 y uno de ellos deberá ser de los instrumentos a promocionar (Grupo 1º). Por prioridades: 1= el de mayor prioridad / 2= el de menor prioridad.

3.3. Adin nagusiko ikasleen instrumentu aukeraketa

Aurreko ikasturteko irizpidea mantenduz, ikasle helduek plaza izango dute irakasleek lanaldia osatzen ez duten espezialitateetan.

3.3. Selección de instrumento para alumnado mayor de edad

Manteniendo los criterios del pasado curso, el alumnado mayor de edad tendrá plaza en las especialidades en las que el profesorado no haya completado su jornada.

3.4. Lehentasunak

Eskaera guztiari erantzuterik ez balego, ondorengo lehentasun ordenaren arabera ezarriko liratekeen irizpideak:

1.- Gradu profesionaleko ikasketak egin nahi dituzten ikasleak eta Herri Arte Eskolako Musika Eskolan gaur egun matrikulatuta daudenak.

2.- hastapen artistiko multidiziplinarreko ikasleak (7 urtekoak) eta musika-tresna aldatu nahi duten 13 urtetik beherako ikasleak, beti ere, aukeraketa berria dokumentu honetako "Instrumentuen aukeraketa" atalean ezarritako irizpidearekin bat datorren bitartean.

3.- Aurreko ikasturtean 1. aukera bezala eskatutako musika-tresnan lekurik izan ez dutenen kasu bereziak banaka aztertuko dira.

4.- Ikastetxean matrikulatuta dauden gainontzeko ikasleak.

3.4. Prioridades

Si no se pudiera atender todas las peticiones, se aplicarán los criterios que se detallan a continuación por orden de prioridad:

1. - Alumnado que desea acceder a los estudios de grado profesional y que actualmente está matriculado en la escuela de música Herri Arte Eskola.

2.-Alumnado de Iniciación Artística multidisciplinar (7años) y alumnado menor de 13 años y que desee cambiar de instrumento, siempre que la nueva opción se ajuste al criterio indicado en el párrafo "Elección de instrumento" de este documento.

3.- Los casos especiales de alumnado que desea cambiar de instrumento por no haber obtenido plaza en el solicitado en 1º lugar el curso anterior, se estudiarán individualmente.

4.- Demás alumnado matriculado en el centro.

5.- 18 urtetik beherako ikastegian matrikulatuta ez dauden pertsonak

5.- Personas menores de 18 años que no se encuentren matriculadas en el centro.

6.- Gradu profesionaleko ikasketak egin nahi dituzten eta ikastegian matrikulatuta ez dauden ikasleak.

6.- Alumnado que desee cursar estudios de grado profesional y que no se encuentre matriculado en el centro.

7.- Ikastegian matrikulatuta ez dauden helduak.

7.- Adultos que no se encuentren matriculados en el centro.

8.- Bigarren musika-tresna eskatzen duten ikasleek

8.- Alumnado que solicite un segundo instrumento.

4. ARTIKULUA: IKASLE BERRIEI PLAZAK TALDEKO IKASGAIETAN ESLEITZEKO PROZEDURA

ARTICULO 4: PROCEDIMIENTO PARA LA ASIGNACIÓN DE PLAZAS A NUEVO ALUMNADO EN ASIGNATURAS COLECTIVAS

Plaza berriak zozketa bidez esleituko dira, eta zerrendako lehen pertsonari asteko lehen eguneko lehen ordua esleituko zaio, eta horrela jarraian.

Las nuevas plazas se asignarán por sorteo, asignándose a la primera persona de la lista la primera hora del primer día de la semana y así sucesivamente